

PROBA ESPEZIFIKOA

2022ko PROBA

GEOGRAFIA

PROBA

ERANTZUNAK





Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK GORAKOAK

2022ko MAIATZA

GEOGRAFIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2022

GEOGRAFÍA

1.- Egin ezazu irudi honi buruzko iruzkin bat (2,5 puntu)



2.- Garatu ezazu gai hau (3 puntu)


Espainiako klima moten ezaugarri nagusiak

3.- Defini itzazu kontzeptu hauek. (hauta itzazu horietako 3). (guztira 1,5 puntu)

- Galdara
- Deforestazioa
- Europako Batzordea
- Alde zaharra
- Abeltzantza estentsiboa
- Industria-deslokalizazioa



4.-Egin ezazu biztanle-piramide honi buruzko iruzkin bat (3 puntu)





EBAZPENA GEOGRAFIA (2022ko maiatza)

1.- Egin ezazu irudi honi buruzko iruzkin bat (2,5 puntu)

Deba ibarreko paisaia. Bergara (Gipuzkoa)

Irudian, ibai baten ibilgua ikusten da. Kantauriko isurialdeari dagokion haran bat da, bere morfologia, landaretza eta lurzoruaren erabileragatik. Bertan ubidea eta ibaiertza azaltzen dira.

Landaretzari dagokionez, ezkerraldean baso bat dago, zuhaitz eta zuhaixkekin (zumarrak, lizarrak, haltzak, sahatsak); eskuinaldean, berriz, berezkoak diren belar-landaredia eta zuhaixka-landaredia.

Kantauriko isurialdeari dagokion klima ozeanikoa da irudikoa: urteko bataz-besteko tenperatura 13-14 °C da, eta prezipitazioak 1.600 mm ingurukoak.

Ikusten dugun ur-korrontea ur gutxikoaldi batean dago, emariak ez baitu ibai-ohea estaltzen.

Ibaiak eta ibaiertzetako landarediak funtzio naturala mantentzen dute, eta eskuinean ageri diren eraikuntzak etxebizitzak dira, bizitegi-funtzioa dute.

Gizakiak lurraldean egindako jardueren eraginez, ibai-espazioa okupatu da etxebizitzak eraikitze eta azpiegiturak kokatzeko. Hala, jabari publiko hidraulikoa (dominio público hidráulico) inbaditu du. Gainera, eurite iraunkorrak eta biziak gertatzen direnean, ibaiaren emaria handitu egiten da, eta leku horretako pertsonak eta ondasunak arriskuan jartzen ditu. Uholdeak maiz gertatzen dira. Horregatik, oso garrantzitsua da hori kontuan hartzea eta etorkizunean uholdeak har ditzakeen eremuak ez okupatzea, eta, halaber, jakitea zein maiztasunarekin gerta daitezkeen uholdeak.

2.- Garatu ezazu gai hau:

1. Klima ozeanikoa

Iberiar penintsulako iparraldea hartzen du, hau da, Bizkaiko golkoko erlaitza eta Galizia. Prezipitazioak ugariak eta erregularrak da. Urteko kantitate osoa 800 mm baino gehiago da, eta egun euritsuak 150 baino gehiago dira. Prezipitazio gehien neguan egiten du, eta gutxien udan. Gehenez bi hilabete lehor gerta daitezke (30 mm-tik beherako prezipitazioak). Tenperaturak leunak dira, eta tenperatura-bitartea txikia da.

2. Klima mediterranea

Klima ozeanikoaren lurraldetik hegoaldera dagoen Espainia penintsularra, Balear uharteak, Ceuta eta Melilla hartzen ditu.



2.1. Itsasoko klima mediterranea

Itsasoko klima mediterranea Iberiar penintsulako kostalde mediterranea, hegoaldeko kostalde atlantiko, Balear artxipelagoa, Ceuta eta Melilla hartzen ditu. Prezipitazioak urriak dira: 800 eta 300 mm bitartean.

- Mediterraneoko kostaldean, prezipitazioak urriagoak dira Atlantikoko depresioak noizbehinkakoak direlako.
- Hegoaldeko kostalde atlantikoan prezipitazioak ugariagoak dira, Atlantikoko depresioek handik igarotzean eragin handiagoa dute eta.

Temperaturak gora egiten du iparretik hegora: temperatura-bitartea tartekoa da (12 °C-16 °C), udak beroak (22 °C-tik gorakoak) eta neguak leunak izaten dira (batz bestea 10 °C-tik gorakoak).

2.2. Klima mediterraneo kontinental

Iberiar penintsularen barrualdean dago, Ebroren haranaren erdialdean izan ezik. Prezipitazioak urtean 800 eta 300 mm bitartekoak izaten dira.

- Gaztelan eta Ebroren sakonunearen erdigunean urriak dira. Neguan bigarren mailako minimoa izaten dute, eta maximoa ekinozio-urtaroetan gertatzen da, batez ere udaberrian.
- Penintsularen barrualdeko mendebaldeko sektorean, prezipitazioak ugariagoak dira, Atlantikoko depresioak askotan igarotzen dira eta. Temperatura-bitarte handiak izaten dira, 16 °C-tik gorakoak.

2.3. Klima mediterraneo lehorra, subdesertikoa edo estepakoa

Iberiar penintsularen hego-ekialdea eta Ebroren haranaren erdialdea hartzen ditu. Urteko prezipitazioak 300 mm baino urriagoak dira.

- Hego-ekialdean, ingurua lehorra da, Mediterraneoko depresioak gutxitan iritsi eta Afrikako aire-masa lehorrak maiz iristen direlako. Kima subdesertikoa da. Urtean 150 mm-tik beherako prezipitazioak.
- Ebroren haranaren erdialdea lehorra da, Mediterraneoko depresioak iristen ez direlako eta Mediterraneo itsasoaren eraginik ez duelako.

Temperaturei erreparatuta, honako inguru hauek bereizten dira:

- Hego-ekialdeko barnealdeko eta Ebroren haranaren erdialdeko estepa hotza: urteko batez besteko temperatura 17 °C-tik beherakoa da, eta neguak moderatuak edo hotzak izaten dira.
- Hego-ekialdeko kostaldeko estepa epela. Urteko batez besteko temperatura 17 °C-18 °C-koa da, eta neguak oso leunak dira (ez da 10 °C-tik behera jaisten).



2. Mendiko klima

1.000m-tik gorako altitudeko inguruetan dago. Altueran gora egin ahala, prezipitazioak ugaritu eta tenperaturak jaitsi egiten dira. Prezipitazioak 1.000 mm-tik gorakoak izaten dira urtean. Tenperaturei erreparatuta, urteko batez bestekoa txikia da (10 °C-tik behera), udak freskoak eta neguak hotzak. Horren eraginez, ugariak dira elur-prezipitazioak.

3. Kanarietako klima

Kanariar uharteak klima-eremu berezia dira. Prezipitazioak oso urriak dira behe-lurretan. Mendebaldeko uharteetan, 300 eta 150 mm bitarteko prezipitazioak daude urtean, eta maximoa neguan gertatzen da. Goi-lurretan, ordea, prezipitazioak 1.000 mm-koak izan daitezke. Tenperaturak epelak dira urte osoan behe-inguruetan, hilabete guztietan 17 °C-tik gorakoak dira eta. Beraz, tenperatura-bitartea txikia da. Goi-inguruetan tenperaturak jaitsi egiten dira.

3.- Defini itzazu kontzeptu hauek (Hautatu 3). (guztira 1,5 puntu)

Galdara: Kanarietako erliebe bolkaniko mota bat da. Leherketak edo sumendien hondoratzeak eragindako krater biribil handiak dira. Aipamen berezia La Palmako uharterako Taburientekoa.

Deforestazioa: Gizakiaren presioaren eta kutsaduraren ondorioz lurralde batek bere basoa galtzea dakarren prozesua.

Europako Batzordea: Europar Batasunaren barneko botere betearazlea duen organoa da, baina legegintzan ere parte hartzen du. Legeak, politikak eta ekintza-programak proposatzen ditu, eta Europako Parlamentuaren eta Europar Kontseiluaren erabakiak aplikatzen ditu.

Alde zaharra: Alde zaharra hirien jatorritik XIX. mendearen erdialdera, industrializazioa hasi arte, urbanizatutako hiriaren zatia da. Gaur egungo hirietan azalera txikia hartzen du, baina balio handia du kultura-ondare handia duelako.

Abeltzaintza estentsiboa: Azienda batik bat larre eta bazkalekuetan elikatzen den eta beraz inguru fisikoari lotua dagoen abeltzaintza mota da. Oro har, arraza autoktonoei eta lan-teknika tradizionalei lotuta egoten da.

Industria-deslokalizazioa: Etekin handiagoa ateratzeko helburuarekin industriako enpresak lekuz aldatzea, hau da, abantailak eskaintzen dizkieten tokietara eramatea. Onura horietako batzuen artean, besteak beste, eskulan merkea, lurzoru merkea edo abantaila fiskalak daude.



4.-Egin ezazu populazio-piramide honi buruzko iruzkin bat (3 puntu)

Aurrean daukagun biztanle-piramidearen bidez, Euskadiko 2008ko biztanleriaren egitura aztertuko dugu, Estatistikako Institutu Nazionaletik hartu ditugun datuekin (sexuaren eta adinaren arabera).

Sexuaren araberako egiturari dagokionez, gizonetako gehiago jaiotzen dira emakumezkoak baino: 2008an, 100 neska 106 mutil jaio ziren. Nagusitasun hori helduen taldera iritsi arte mantentzen da (40-54 urtekoak); handik aurrera, emakumezkoen kopuruak gora egiten du, eta aldea oso nabarmena da, batez ere azkeneko taldean (emakumeen kopuruak ia hirukoiztu egiten du gizonena).

Emakumezkoen bizi-itxaropena eta bizimodua dira aurrekoaren arrazoiak: emakumearen sendotasun biologikoa handiagoa da; eta bizi-itxaropena gizonarena baino altuagoa. Beste alde batetik, 1936ko gerrak areagotu egin zuen gizonetako hilkortasuna; horrez gain, industrian egindako lanak arriskutsuagoak ziren gizonentzat, eta bizi-estiloa osasuntsuagoa emakumezkoentzat. Gaur egun, egoera parekatuago dago bien artean; baina, dena den, ohitura kaltegarriak eragin txikiagoa dute emakumeengan.

XX. mendearen bigarren hamarkadan, landa-exodoa indartu egin zen. Euskal Autonomia Erkidegoan, emakumeak gehiago izan ziren. Horregatik, emakumeak nagusitzen dira hirietan; landa-inguruetan, aldiz, gizonak.

Adinaren araberako egiturari erreparatuz gero, hauxe aipatu behar dugu: datu numerikoak kontuan hartuta, helduak (15-64 urtekoak) nagusitzen dira, eta adinekoen kopuruak (65 urtetik gorakoak) gaintu egiten du gazteena (274.972 gazte eta 401.664 zahar).

Piramidearen profila kutxatila-itxurakoa da; horrek biztanleria zahartua islatzen du: oinarria barrurantz sartuta dago, eta oso zabala da helduen eta adinekoen taldeetan. Jaiotza-tasak txikiak dira, heriotza-tasa ere asko jaitsi da; eta, ondorioz, bizi-itxaropena handia da.

Dena den, aipatu behar dugu jaiotzak hazten ari direla nabaritzen dela piramidearen oinarrian: 0-4 urtekoen taldea goikoa baino zabalagoa da piramidean. Aldaketa hori atzerriko immigrazioari esker gertatu da.

Zahartzearen arrazoiak hauek dira: alde batetik, EAEn jaiotza-tasa oso txikia da, Espainiakoa baino txikiagoa. Jaitsiera areagotu egin zen 1975etik aurrera, krisi ekonomikoak langabeen kopurua handitu zuenean. Beste alde batetik, ordutik gaur egunera, heriotza-tasa gutxitu egin da, hainbat faktoreri esker: medikuntza-aurrerapenak, higienaren eta elikaduraren arloetako hobekuntzak, besteak beste. Horren ondorioz, bizi-itxaropenak gora egin du, eta adinekoen kopurua gazteena baino handiagoa da.



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

UNIBERTSITATERA SARTZEKO
PROBAK 25 URTETIK GORAKOAK

2022ko MAIATZA

GEOGRAFIA

PRUEBAS DE ACCESO A LA
UNIVERSIDAD PARA MAYORES
DE 25 AÑOS

MAYO 2022

GEOGRAFÍA

Euskal Autonomia Erkidegoko industriak Espainiako beste probintzietatik etorritako biztanleria erakarri zuen; baina, 80ko hamarkadaren lehenengo urteetan, alderantzizkoa gertatu zen, eta langabezia zeudenen artean zaharrenak jaioterrira itzuli ziren.

Trantsizio demokratikoak mentalitatea ere aldatu zuen: emakumea lan-munduan sartu zen, eta antisorgailuen erabilerak gora egin zuen erlijioaren krisiagatik. Bizi- eta kultura-maila igotzeak seme-alaben kopurua jaistea ekarri du.

Egoera horren **ondorioak** ekonomian zein gizartean islatzen dira. Alde batetik, langile aktiboen kopurua murriztu egin da. Kontuan hartuta erretiratuen pentsioak haiek ordaintzen dituztela, aldaketa handiak izango dira pentsio-sisteman.

Beste alde batetik, familiaren egitura itxuraldatzen ari da. Lehen, emakumeak zaintzen zituen seme-alabak eta adinekoak; baina, lan-munduan sartu zenetik, egoera aldatu egin da. Familiarekin egon ezin diren adinekoek egoitzak behar dituzte, eta haiekin bizi diren familiek babes-zerbitzuak eta bestelako zerbitzuak behar dituzte.

Osasun-zerbitzuekin berdin gertatzen da: adinekoek ospitaleko egonaldi luzeak, errezeta ugari, eta medikuen bisita asko kontsumitzen dituzte, eta horrek gero eta baliabide gehiago eskatzen du.

EAEko **gertaera demografiko** aipagarrienek sortu dute piramidearen profila. Piramidea goitik hasita aztertzeko, honako gertaera hauek hartu behar ditugu aintzakotzat:

Piramidearen goiko aldean, emakumezkoen kopurua gizonezkoena baino handiagoa da. Horren arrazoiak hauek dira: emakumearen bizi-itxaropen handiagoa eta gizonek tradizioz izan duten bizi-estilo arriskutsuagoa. 1918ko gripeak handitu egin zituen heriotza-tasak, batez ere haurren artean; eta Gerra Zibilak 2008an 70 urtetik gorakoak zirenean batez ere izan zuen eragina (1910-1920 urteen bitartean jaiotakoak), 1936an gudara joateko adina zeukatelako. Hori, bai jaiotza-tasan, bai heriotza-tasan nabaritu zen.

Gerra Zibila bukatu ondoren, gerraostea (1939-1958) heldu zen; demografia-ondorioa 69-50 urtekoen taldeetan islatzen da piramidean. Sargune handi bat dago 65-69 urtekoen taldean: jaiotza-tasa beheratu egin zen gerragatik eta, gainera, erbesteratu askok alde egin zuten Euskaditik. Gerrak sortutako "belaunaldi hutsa"ren eragina ikusten dugu talde horretan: seme-alaben kopurua gutxitu egin zen, belaunaldia txikiagoa zelako.

1944-1958 urteen bitartean (64-50 urtekoak, piramidean), nahiz eta Francok jaiotzen aldeko politika egin, ez zen izan gerraosteko baby boomik, nazioarteko blokeoak autarkia ekonomikoaren eragin zuelako, eta hornikuntza faltak eta garestitzeak jaiotza-tasa baxu mantendu zutelako.

45-30 urteko taldeek lau barrako irtenune bat eraten dute, baina beste intentsitate batekin: 1959-1968 urteen bitarteko baby boom atzeratua da irtengunearen arrazoia; 1959an,



nazioarteko blokeoa bukatu egin zen, Espainiak kanpoko laguntza ekonomikoa jaso zuen eta Egonkortasun Planak herrialdearen ekonomia bultzatu zuen.

Batez ere industriak jaso zuen laguntza, eta EAEk etorkinak jaso zituen. Demografia-ondorioa jaiotza-tasan nabaritu zen: piramidean, 30-34 urtekoen taldean. Landa-exodoa indartu zen, eta hiriak familiaren tamaina murriztera behartu zuen.

80ko hamarkadaren hasieran, jaiotza-tasak beherantz jarraitu zuen (29-25 urteko taldea); eta, horregatik, sargune handi bat dago 05-24 urtekoen taldeetan.

Piramidearen oinarrian (0-4 urteko taldea) jaiotza gehiago dagoela nabaritzen dugu; etorkinei esker, jaiotza-tasak gora egin du, baina zahartze-prozesua ez da gelditu.

PROBAKO GALDEREN ETA EZAGUTZA-MULTZOEN ARTEKO LOTURA

GALDERA	EZAGUTZA-MULTZOA
1. galdera	1. multzoa
2. galdera	3. multzoa
3. galdera	1. multzotik 5. multzora
4. galdera	5. multzoa (5.1)